

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Nire onetik hobera

LUISA-BELARRA, *Aloisya citrodora*, lo-eragile... Etxeko ekialderako ate-bazterrean bizi den alea hostajeta berritzen hasi da, sasoi berrirako janzten. Hegotik etorritako bero zaharrari men egin eta puntta berriak lehertu ditu; Luisaren poz honi zor ote dizkiot, bada, azkenaldiko lo-putzu sakonak? Ala izerdi berritzeari, neronenari. Beharbada, bero zahar honi... Izan ere, hego haizea baino zaharragorik ba al da?

Luisa-belarra usainzaleon altxorra da. Hostoen limoi-usain freskoagatik ezaguna bada ere, gutxik igarriko luke lore-mordo xuriena, fina goxoa samurra... Loreona perfumetan ez bada, jasotzen zaila da. Hostoena bai erraza. Udako beroenean, ilargia goienean denean, gaua argi-azkorria erditzean hiltzen denean, hostoak bildu eta haizeberritzen den toki ilun eta lehor batean jaso. Meheak



Parmako Maria Luisa. Hari zor dio izena luisa-belarrak.

izaki, aise ihartuko dira. Gero, ukitu ordurako limoia ekarriko dizu sudur-mintzetara. Eskuetan kras-kras lauskitzen baduzu, lurrin ederra mintzetatik barrena odolera, nerbioak dantzan jarri eta burua jango dizu; eta erne, zeure onetik atera eta zeure hobera eramateko gai da. Uummmm...

Esan dinat, Luisa, neuk egun-sentira aldeko etxeko horman haut, eta hosto lehorrak etxean nonahi. Hire izena, Espainiako Karlos IV.a zenaren emazte Italiako Parmako Maria Luisari zor dion. Luisa hark Baionan galdu zinan erregetza Napoleonen mesederako. Ez zuan asko usteko ehunka urte geroago landare batean mendeku hartuko zuanik. Espainia eta Frantzia arteko guda giro hura ez dun baretu. Frantsesek berentzat nahiko luketen landareari, Luisa hura ohoratzen duen *Aloisya* izen zientifikoa jarri zaio.



JAKOBA ERREKONDO

Ezpain horiak

Horiz pintatzen ditu udaberriak putzuen ezpainak. Pinudietako gurdi-bideetakoak, batik bat. Udaberriko lehen beroekin irekitzen ditu loreak pinuak eta haiek polena askatzen dute. Polen horrek lore arretik emerako bidea egin behar du. Airean polenez asebetetzen da, lagun batzuen arnasa okitzeraino gogaituz. Gaueko ihintzak edo euri pittin batek polen hori lurrera jausten du, ura ibili den mugetan arrasto hori politak margotuz.

44 eta 1.490

Egur arinena eta trinkoena, metro kubiko egurraren pisua kilotan. Arinena Kubako *Aeschynomene hispida*, 44 kilogramo besterik ez, eta trinkoena Hegoafrikako *Olea capensis*, 1.490 kg. *Guinness Book of World Records* liburuan jasotako errekorak dira, baina lasai, luze gabe trinkoago edo arinagoren bat azalduko da. Komeni zaie...



Olea capensis, Guinness liburuaren arabera egurrik trinkoena daukan landarea.

WWW.NEWPLANT.CO.ZA